

AUTONOMIA PERTSONALA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITATEA

IRAKASLEENDAKO JARRAIBIDEAK

LANA ETA ENPLEGUA, LAN PRODUKTIBOA ETA LAN ERRE-PRODUKTIBOA.

Sarritan "lana" hitza erabiltzen da ordaindutako enplegu edo lana izendatzeko. **Lan produktiboaz** ari gara. Erabilera honek ikusezin bihurtzen du ordaindu gabeko lana, eta lan hori lan erreproduktiboa da, hain zuzen ere, emakumeek egiten duten lana.

- ▶ Alde batetik, azpimarratu behar dugu **lan erreproduktiboaren**, zaintzaren garrantzia, aurreko ikaskuntzan aipatzen genuen gisan, eta bestetik, adierazi behar dugu pertsonaren garapen integralerako eta bizitza familiar eta sozial oso baterako honek dituen mugak.

Enplegu gehienak ekoizpenaren alor publikoan ematen dira, eta tradizioz gizonezkoak aritu dira eremu horretan. Alderantziz, ordaindu gabeko lanak ohiko moduan alor pribatuan garatzen dira, eta tradizioz eremu hori emakumeena izan da. Hori dela eta, bi lan mota horiek, ordaindua eta ordaingabea, lan produktibo eta lan erreproduktibo izena eman zaie.

Lana, ordaindua edo ordaingabea, gizon eta emakumeen artean jarduera nagusi eta beharrezkoa da gure gizartean. Banaka eta taldeka beharrezkoak diren zaintzak, zerbitzuak, produktuak eta baliabideak eskaintzeaz gain, pertsona bakoitzaren **nortasuna eta bizitzeko** modua osatzen ditu, eta baita familian eta gizartean gizon eta emakume bakoitzaren **rola eta gizarte estatusa** ere.

ENPLEGUAREN ZENTRALITATEA

Gure gizartean enplegua nahitaezkoa da bizitzeko, guztiz beharrezkoa da pertsonen bizitza eta autonomiarako, bai emakumeendako eta bai gizonendako. Hori dela eta **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotzen diren oinarritzko eskubideetako bat da**. Egungo gizarte honetan, enplegurik gabe ez dago autonomia ekonomikorik, eta autonomia ekonomikorik gabe ezinezkoa da autonomia pertsonalik egotea. Gizon eta emakumeek behar dute enplegu bat izan, ordaindutako lan bat, beren bizitza proiektuak (profesionalak, pertsonalak eta familiakoak) garatu ahal izateko autonomiaz eta aukera berdintasunez, mendetasunik eta desberdintasunean oinarritutako harremanik gabe.

- ▶ **Enplegu** edo lan produktiboak, soldataz gain abantaila gehiago eskaintzen ditu. Eskubide ekonomiko eta sozialak sortzen ditu, besteak beste eritasun eta langabezia aseguruak, oporrak eta jubilazioa, etab. Ondokoak ere sortzen ditu: harremanak, prestigioa eta gizarte estatusa, prestakuntza aukerak, ikaskuntza eta garapen pertsonala, etab.



eskola inklusiboa

Inklusiboa pertsona guztiendako, neska zein mutil izan, eta inklusiboa **helduarorako beharrezkoa den guztirako**. Honek berarekin dakar gauzak egiteko modu berri bat, berdintasunerako hezkuntza sistematizatu bat, bere baitan hartuko dituen berdintasunerako balioak eta ezagutzak eskuratzea eta baita ere **bizitzarako trebetasun** mota guztiak, bizitzaren alderdi guztietarako.

Eskolak ezinezkoa duenez dena irakastea, arreta jarri beharko luke **bestelako eremuetan ezin eskura daitezkeen ikasketetan**, eta alde batera utzi eskolatik kanpo eskuratzen ahal diren ikasketak. Teklatu batekin idaztea eta makina bidez kalkulatzea eskolatik kanpo ere ikas daiteke. Baina **berdintasuna eta demokrazia** nekez ikasten ahal dira eskola eremutik kanpo.

bizitza proiektu bat

Gure inguruan, gure gizartean, bizitza proiektu batek bere baitan hartzen du proiektu profesional bat, baina bizitza proiektu bat ez **da soilik proiektu profesional bat**. Eskola prestakuntza proiektu profesional bat prestatzera murrizten badugu, eskola langileen fabrika huts bihurtuko dugu, enplegatu fabrika bat, ez pertsonena.

Helduaroak, laburbilduz, hiru eremu eta denbora ditu: **harremanen-familiarra, lanekoa-zibikoa eta ludikoa edo aukera librekoa**. Gure ikasleek, orokorrean, azkeneko bietarako jasotzen dute hezkuntza: Ikasketarako denbora eta aukera libreko denbora.

harremanena eta familiarra

Orokorrean, eskolan harremanen eta familiarren esparrua egintzat ematen da, jakintzat hartzen da familiak erakusten duela, "tribu osoak", "**bizitzak berak erakusten baitu**". Gaur egun badakigu gure ikasleen ikaskuntza "natural" hori gizon eta emakumeen arteko harremanen modua zaharra dela, ez egungoa, eta are gutxiago etorkizuneko.

lanekoa-zibikoa

Berdintasunik gabeko harremanen ikaskuntza horretan, gizonetakoak, mutilak eta haurrak dira lan munduaren protagonistak, **munduaren egileak**, gutxienez sinbolikoki, eta etxe-ko jaunak eta jabeak. Beraiei dagozkie lana eta bertatik eratortzen den independentzia, hau da, lanekoa eta zibikoa den eremua. Ez neskei.

Neskak autonomia pertsonalerako hezi nahi baditugu enpleguak autonomia ekonomikorako duen garrantzia erakutsi behar diegu; autonomia pertsonalak egungo eta etorkizuneko gizartean berebiziko garrantzia duela gizon eta emakumeen gizarte integrazioan eta autonomia pertsonalean.

Horretarako ikastetxeetan oraindik ohikoak ez diren ikaskuntzak sartu eta landu behar ditugu modu sistemati-koan:

- Pertsonaren baitako zein pertsonen arteko gatazkak konpontzea.
- Denbora kudeatzea.
- Trebetasun interkomunikatiboak.

ludikoa-aukera librekoa

Eremu ludikoa edo aukera librekoa neska eta mutilen berezitako kultura produktuak eskaintzen dizkie, telebis-ta sailen bat eta musika eta zinema ikuskizun zenbait izan ezik. Hemen ematen da, nesken eta mutilen arteko harremanetan, beste edozein esparruan baino modu estereotipatuan eta kaltegarriagoan, ikastetxeek oraindik ere lantzen ez duten eta hain garrantzitsua den hezkuntza afektibo-sexuala. Beraz, premiazkoa da eskolak berdintasunetik ekitea ikasleen komunikazio sexualari eta hezkuntza sentimetalari.

- ▶ Gure gizartean **enplegurik ez izateak** berarekin dakar autonomia eza, mendetasunezko harreman pertsonalak, familiarrak eta zailtasunak gizarteratzeko. Enplegua galtzea egungo beldur handienetakoa da, nagusia ez bada.
- ▶ Honi dagokionez, **neskekin landu behar dugu bereziki enpleguaren zentralitatea** beren bizitzetan, beren gizarte eredu gehienek ez dutelako balio hori aurreikusten edo modu partzialean, osagarrian edo sekundarioan egiten dutelako.

LANA ETA ORIENTAZIOA, IKASKETEI ETA LANBIDEARI DAGOKIONEZ

Lanak ia jarduera gehienak hartzen ditu baitan. **Enpleguak edo ordaindutako lanak** denbora handia hartzen du, eta beharrezko baldintza da gizon eta emakumeek bizitza proiektu autonomo bat planteatu ahal dezaten.

Ikasleek, orokorrean, ez dituzte ezagutzen lan munduko ezaugarri eta funtzionamendu errealak, hezkuntza ibilbide osoan zehar erabakiak hartuz doaz, zenbait bide hautatu eta, bizitzarako bere prestakuntza-aren baitan, **lan jardunerako prestatuz doaz**.

Ikasketetarako eta lanbiderako orientazioa lehenengo eskola egunetik hasten da, lehenengo hitz, irudi, abesti, ipuin eta abarretik... Horretaz kontziente izan behar dugu eta prozesu hau sistematizatu, hezkidetzatik eta berdintasunaren alde.

Bigarren Hezkuntzan ikasketa eta lanbide ibilbideen gaineko informazio zehatza eman baino lehen:

- ▶ Aurkezten ahal dizkiegu gizon eta emakume **langileen estereotipatu gabeko erreferentzia** eta ereduak, lanbide eta lan eremu mota guztietan.
- ▶ Aztertzen ahal ditugu, neska eta mutilen **gustuak eta itxaropenak** eraikitzeke eragina duten baldintzak eta zailtasunak, genero estereotipoak eta aurreiritziak,

Bigarren Hezkuntzan informazio zehatza ematen dugunean, aurrekoaz gain:

- ▶ Ibilbide profesional desberdinak lotzen ahal ditugu, neska zein mutilen, **ikasten** eta garatzen ahal **dituzten ahalmenekin**, eta ez pertsonen sexuarekin.
- ▶ Lan aukera guztiak aurkezten ahal ditugu bai neska eta bai mutilendako posible gisa, horiek aukeratzea ondokoan mende jarriz: **ezaugarriak, ahalmenak, desio eta proiektu pertsonalak, banakakoak**.
- ▶ Aztertzen ahal ditugu, neska eta mutilen ikasketa eta lanbide erabakiak hartzeko prozesuan eragina duten genero estereotipoak eta aurreiritziak: **emakumeen eta gizonen lanak**, etab.
- ▶ Informazioa ematen ahal diegu enpleguaren **aldez aurreko** alderdi eta **baldintzen** gainean: bateragarritasuna bestelako alderdi eta bizi-ardurekin, ordutegia, joan-etorriak egiteko aukerak, prestakuntza osagarria jasotzeko aukerak, etab.
- ▶ Ondokoa lantzen ahal dugu: enplegua ez da aukera saihestezina, bizi-beharra baizik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAK ETA GIZONEN ENPLEGUAK

Lanerako ikasketen eta prestakuntzaren datu estatistikoek, eta baita lanean ari diren gizon eta emakumeenak ere, erakusten dute lanbide batzuetan oraindik ere **gizonezkoak nagusi direla** (ingeniaritzak, mekanika...). Beste batzuetan aldiz, **emakumezkoak dira nagusi** (osasungintza, irakaskuntza...). Lan batzuk sinbolikoki "ehiztarien", "munduaren egileen" jabetza izaten jarraitzen dute, beste lan batzuk ordea "zaintzaileenak" izaten jarraitzen dute. Honi segregazio horizontala deitzen zaio.

- ▶ Datuek erakusten dute, gainera, orokorrean, gizonenak izaten direla baldintza eta soldata hoberenak dituzten enpleguak. Eta, alderantziz, baldintza kaxkarrak dituzten eta ezegonkorak diren enpleguak emakumeenak izan ohi dira. **Diskriminazio horizontala** deitzen zaio horri.

Teorikoki eta legalki bai gizon eta bai emakumeak edozein enpleguan aritzen ahal diren arren, datuek erakusten dute badirela **emakumeendako enpleguak eta** badirela **gizonendako diren enpleguak**, enplegu horien edukari eta baldintzei dagokionez. Adibidez:

- ▶ Emakumeek pertsonen zaintzarekin zerikusia duten zerbitzuen alorreko enplegu gehienak betetzen dituzte.
- ▶ Emakumeek lanaldi partzialeko enplegu gehienak betetzen dituzte, eta baita ere soldata eta ospe gutxien duten lan gehienak.
- ▶ Emakumeek laneko eta familiako eginkizunak bateratu ahal izateko neurriak erabiltzen dituzte: lanaldi murrizketa, eszedentziak, etab. Gizon gehienek saihestu egiten dituzte neurri horiek, modu partzial batean eta denbora tarte baterako pertsona lan merkatutik aterazi eta bere lanbide-karrera ahultzen dutelako.
- ▶ Emakumeek ordaingabeko lan familiar gehiena egiten jarraitzen dute, eta honek ardurara eta lan gainkarga dakar (lanaldi bikoitza deitzen den hori) eta mugitzeko zailtasunak eta murrizketak ere badakartza beren enpleguetan.
- ▶ Honen ondorioz emakumeek, orokorrean sustapen eta ardurara eta zuzendaritza karguetan aritzeko aukera gutxiago dituzte. **Diskriminazio bertikala** deitzen zaio horri.

Errealitate honek **emakumeendako diskriminazioak eta desabantailak** sortarazten ditu **lanaren eremuan**, beren autonomia pertsonalean, beren bizitza proiektuetan eta familia eta gizarte harremanetan.

LANBIDE KUALIFIKAZIOA

Diskriminazio horien atzean ageriko moduan eta modu estalian dauden estereotipo sozio-kulturalak erakutsarazi eta aztertu arte, diskriminazio horiek errepikatu egiten dira gure neska eta mutilak egiten dituzten aukeraketetan eta baita lan mundua arautzen duten mekanismoetan ere. Hau da, eragin handia izaten jarraituko dute batzuen eta besteen lanbide kualifikazioan eta enplegarritasunean.

Beraz, eta honen aurkako **berariazko esku-hartzea** egin ezean, gure ikasleek gizarte estereotipoetan oinarritutako aukeraketak egiten dituzte, alde batera utzita beren espediente eta aukera pertsonalak.

- ▶ Pentsatzea lanbide batzuk sexu jakin batendako direla eta ez bestearendako bi mekanismo hauen bidez egiten da: lan bakoitzari zein gaitasun eskatzen zaizkion eta sexu bakoitzak zein gaitasun dituen.

enpleguaren zentralitatea

Egungo gizartean, enpleguak toki garrantzitsua hartzen du autonomia pertsonalean eta bizitza pertsonalaren proiektuan. **Pertsona batek lan ordainduari emanen dion garrantzia bere bizitzaren beste arlo batzuekin alderatuta**, pertsona horrek lana bilatu eta mantentzeko duen motibazioan eragiten du (familia-lanak direla eta denborarik ez izatea prestakuntza eta sustapenerako, lan merkatura egokitzeko, etab.)

Enplegua, gaur egun gizarteratzeko, eta autonomia eta garapen pertsonalerako faktore nagusia da. Enplegurik ez izatea emakumeak eta gizonak jartzen ditu ezegonkortasun, mendetasun eta gizarte bazterkeria egoeran.

enplegua eta neskak

Sozializazio prozesu orokorrak direla eta (salbuespenak beti izan arren), **neskak** diren ikasleek errazago hartzen dituzte bere gain etxe arloko rol eta eginkizunak. Ondorio gisa, lehen-tasuna ematen diete familia ardurei eta **enplegua bigarren mailako elementutzat hartzen dute** beren bizitza proiektuan. Ez da gauza bera gertatzen mutilen kasuan.

Horretarako, beharrezkoa da neska diren gure ikasleekin enpleguaren zentralitatea lantzea, **kontzientzia har dezaten enplegua** beren bizitza proiektuan **oinarrizko lehentasun gisa hartzeak** edo ez hartzeak dakarrenaren gainean. Konturatu daitezen bizitza proiektu pertsonal orok enpleguaren beharra duela, oinarritzko zutabe gisa.

Enpleguaren zentralitateak ondokoa dakar berarekin:

- **Mentalitate eta lehentasun aldaketa, konpromisoa** autonomia pertsonalarekin eta norberaren bizitza proiektuarekin.
- **Bizitza antolaketaren aldaketa kontsekuentea**, bai eskaintzen den denboran eta baita eskaintzen den arduraren.
- **Enplegarritasun handiagoa lortzeko ahalegina**, enplegua lortu eta mantentzeko aukera handiagoa.

- **Zaintzaren eremuko ikaskuntzak eta trebakuntzak berriro erabiltzea** lanaren esparruan.
- Gizarte baliabideak, **enplegua familia bizitzarekin uztartzeko.**

hiru gako

Neska eta emakumeekin enpleguaren zentralitatea lantzeko orduan gako diren hiru alderdi hauek identifikatu dira:

- **Enpleguarekiko motibazioa**, proposatutako helburua lortzeko ahaleginarekin lotura duelako: bizitza proiektu pertsonal eta autonomoa eta, bertatik, hala badagokio, berdintasuneko harreman afektibo eta familiarak.
- **Denbora erabilgarritasuna** edo disponibilitatea, enpleguan nola egon nahi dugun, zein baldintzetan, zenbat denbora emanez, etab.
- **Erantzukizun partekatua** edo erantzukidetasuna, zaintzari eskaintako arduraren eta denboraren banaketak eragin zuzena duelako enpleguari eskaintzen zaion denboran.

orientazioak

Aztertu behar dugu nola eragiten dieten ikasleei ikasketarako eta lanbiderako orientazioan ohiko moduan erabiltzen diren alderdiak:

- Prestakuntza **ibilbide** desberdinak eta ibilbide batzuetatik besteetara igarotzea.
- Ikasketetan **sartzeko** baldintza akademikoak eta horiek **gainditzeko aukerak.**
- Prestakuntza mota eta jarduera profesionala eta, hala badagokio, ikasle bakoitzaren **ezaugarri pertsonaletara** egokitzea.
- Prestakuntza mota bakoitzaren **lanerako aukerak**, lana aurkitzea eta enplegarritasuna.

Berdintasunerako hezkuntzatik bestelako lan ildoak gehitu behar ditugu lan mundua hobeki ezagutzeko eta orientazio hobea lortze aldera:

- Enplegua lehentasuna ote den bizitza proiektuan.
- Genero bazterkeriaren azterketa lan munduko eremuetan, lanbideetan eta kategorietan.
- Ardurakidetzeta eta etxeko eta laneko ardurak uztartzeta.

- ▶ Gure esku-hartzeak agerian utzi behar du lanbide kualifikazioak **ikasitako kualifikazioak** direla, ez berezkoak edo naturalak, eta **pertsonalak** direla, banakoak, eta ez sexu bati edo besteari lotutakoak.
- ▶ Lan baterako edozein baldintza (forma fisiko jakin bat, ezagutza teknikoa, agintzeko edo antolatzeko, entzuteko dohaina, enpatia, ausardia edo aukeratzea, etab.) ikasketaren ondorioa da eta honen emaitza pertsona bakoitzaren ezaugarrien eta ahaleginaren mende dago, eta ez pertsona horren sexuaren mende.

KONTUAN IZAN BEHARREKO FAKTOREAK ETA JARRAIBIDEAK

Ikasketarako eta lanbiderako orientazioan ohikoa izaten da ondoko faktoreak aztertu eta agerian uztea:

- ▶ Gomendagarria da ikasketa espedientea, notak orokorrean, eta bereziki nota hoberenak aztertzea. Honi dagokionez, aztertu eta egiaztatu beharko genuke **neska eta mutilen espediente mailaren arabera aukeraketak antzekoak diren edo mutilek beren espedienteak gehiegi baloratzen dituzten eta neskek beraienak gutxiesten dituzten.** Ohikoa den azken kasu honetan, lan egin beharko genuke ikasle bakoitzaren balorazioa eta aukerak modu errealistan egokitze.
- ▶ Familiaren baldintza ekonomikoak eta ikasketen, joan-etorrien, beken eta abarren kostua. Honi dagokionez, aztertu eta ziurtatu beharko genuke **gure ikasleek, neskak edo mutilek laguntza ekonomiko bera jasotzen duten beren familien aldetik**, edo, alderantziz, orain dela urte batzuk ohikoa zen bezala, alabek semeek baino ikasketa motzagoak, geografikoki hurbilagoak eta merkeagoak egiten dituzten.
- ▶ Lanbide desberdinak eta horiek lan merkatuan izaten ahal duten eskaria, etab. Honi dagokionez, aztertu eta ziurtatu beharko genuke ez ditugula soilik errepikatzen merkatuaren egungo datuak, **eta ez dugula proposatzen, besterik gabe, emakumeek prestatzea batez ere emakumeek betetzen dituzten lanpostuetarako** eta alderantziz, gizonak batez ere gizonen betetzen dituzten lanpostuetarako.
- ▶ Pertsonalak diren gustuak, joerak, zaletasunak, hobby-ak etab. Gustu horiek aztertu beharko lirake, ikusteko **egiazki indibidualak edo sozialak diren**, "mutilek ez zaie erizaintza gustatzen", "neskei ez zaie mekanika gustatzen" eta gisa horretakoak. Oroitarazi behar dugu "neskak/mutilek ezin dute, ez dakite, ez dute balio lan jakin bat egiteko" gisako esaldiak gaur egun horrela ematen direla: "neskek/mutilek ez dute nahi/ez dute gustuko lan hori".

Badira, baina, bestelako **faktore implizituak**, agerian jartzen ez badira eta zuzenean ekiten ez bazaie, eragozten ahal dutenak ikasleek beren erabakiak, askatasunez eta erantzukinez, modu egokian hartzea:

- ▶ Aukerak eta **aurreiritzi** familiarak eta sozialak.
- ▶ Indarrean dauden **eredu** profesionalak eta sozialak.
- ▶ **Auto-estimua** eta konfiantza norberaren ahalmen eta aukeretan.
- ▶ **Enplegua lehentasuna** ote den bizitza proiektuan.
- ▶ **Zaintza lehentasuna** ote den bizitza proiektuan.
- ▶ Pertsonak zaintzeko **erantzukizun partekatu edo erantzukidetasun familiar eta soziala** baden edo ez den.